



Azalpen Orria

2012-02-16



GIZARTE FUNTSAREN BATZORDEA

Gizarte funtsaren batzordearen bilera egin da otsailaren 14ean, aipatutako funts honen arautegi berriaren zirroborroaz aritzeko.

ELAk egin duen proposamena funtsari egokitutako kopuru osoaren banaketarako zenbat ehuneko zehaztea izan da, betiere, ertzainen eta senitartekoen osasunarekin zerikusia duten eskaerak irabaziz irten zitezten.

Proposamen hau funtsa bera sortzerakoan ezarritako oinarrietatik dator, izan ere, beharrian garrantzitsu hauek babestea bait da bere helburu nagusia. Hala ere, gero eta gehiago dira ikasketak direla-eta egiten diren eskaerak.

ErNEk eta ESANek sinatutako, eta EUSPELe atxikitutako, indarrean den lan hitzarmenak bide ematen du ustezko beste formakuntza ikastaro aukerak ere gizarte funtsean jasotzea.

ELAk eskatu izan du Ikastegiaren bidez, edo berak egiten dituen hitzarmen bitartez, izan dadila emana beharrezkoa den prestakuntza, beraz, horrelako gastuetarako diru gehiago ematea baztertzeko dugu.

ErNEk eta ESANek uko egin die ELAk emandako proposamena eztabaidatzeari, CCOOen eta SIPEren babesa jaso duen arren, ondorioz, Ertzaintzako lankideen beharrianekin bat datorren banaketa egitearen aukera itxita geratu da.

Arautegia onartua geratu da, oso aldaketa gutxirekin, ErNE, ESAN eta Sailaren botuekin.

Ikastaroak ematea kudeatzeko ahalmena beraiek soilik izateko asmoa beste ezer ez da ezkutatzen hau guztiaren atzean, jakina den bezala horrela autofinantziazio abilatuz.